- ρ Egoera lurraldez lurralde aztertzen badugu, etxebizitzako 180.000 €-tik beherako prezio-segmentuan etxebizitza libreen eskaintza adierazgarria duen herrialde bakarra Araba dela ikus daiteke (eskaintako etxebizitza guztien %23). Bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan eskaintza hori %3ra eta %2ra besterik ez da iristen, hurrenez hurren. Etxebizitzako 300.000 €-tik gorako eskaintzari dagokionez, Bizkaian eskaintako etxebizitza guztien %69 hartzen du, Araban %58 eta Gipuzkoan %53.
- ρ Eskaintza babestuari dagokionez, azterketak nabarmentzen du lau etxebizitzatik hiruk 90.000 eta 120.000 € bitarteko prezioa dutela. Gainera, etxebizitzen %21 60.000 eta 90.000 € bitartean daude eta eskaintza babestuaren %4k besterik ez du gainditzen etxebizitzako 120.000 €-ko prezioa.




**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**3.4. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa prezio-tarteen arabera**

	BABESTUAK	LIBREAK
60.000 € baino gutxiago	0,8	0,0
60.000 - 90.000 €	21,0	0,3
90.001 - 120.000 €	74,5	0,6
120.001 - 150.000 €	3,7	1,5
150.001 - 180.000 €	0,0	4,7
180.001 - 240.000 €	0,0	14,5
240.001 - 300.000 €	0,0	16,9
300.001 - 360.000 €	0,0	19,0
360.001 - 420.000 €	0,0	18,0
420.001 - 480.000 €	0,0	4,7
480.001 - 540.000 €	0,0	7,9
540.001 - 600.000 €	0,0	6,5
600.000 € baino gehiago	0,0	5,5
<b>GUZTIRA</b>	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**3.4. grafikoa. EAEko etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteen arabera**




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.5. grafikoa. Etxebizitza berri libreen banaketa prezio-tarteen arabera eta Lurraldeka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

#### 3.1.2. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak eta kuantifikazioa<sup>3</sup>

- 2007ko bigarren hiruhilekoan eskaintzan antzemandako eraikuntza berriko etxebizitza libreak honela banatu dira Lurraldeka: %47 Bizkaian, %33 Gipuzkoan eta gainerako %20a Araban. Duela urtebete antzemandako banaketarekin konparatuz gero, Bizkaiaren pisu erlatiboak gora egin duela egiaztatuko dugu, Arabaren kaltetan, eta Gipuzkoak maila berean jarraitzen duela.
- Saltzeko eskaintzan antzemandako etxebizitza babestuei dagokienez, Araban kontzentrazio handia dagoela egiazta daiteke, eskaintako bi etxebizitza babestutik bat bertan dago-eta. Gainerakoari dagokionez, saltzeko eskaintza babestuaren %35 Bizkaian dago eta %15 Gipuzkoan.

<sup>3</sup> Hemen aurkeztutako datuen bitartez hiruhileko honetan jasotako etxebizitzaren laginaren ezaugarriak islatu dira, eta lagin hori erabili da prezioen estatistika lantzeko.




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.5. taula. Salgai dauden etxebizitza berriak Lurralde Historikoka

	LIBREAK	BABESTUAK (BOE)	GUZTIRA
Araba .....	814	2.411	3.225
Gipuzkoa.....	1.328	731	2.059
Bizkaia.....	1.896	1.680	3.575
<b>EAE .....</b>	<b>4.037</b>	<b>4.822</b>	<b>8.859</b>


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

3.6. grafikoa. Saltzeko eskaintako etxebizitza berri libreen kopuruaren bilakaera Lurralde Historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

3.7. grafikoa. Saltzeko eskaintako etxebizitza babestuen kopuruaren bilakaera Lurralde Historikoka




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.





## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.8. grafikoa. Eskaintza babestuaren banaketa Lurralde Historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

- ρ EAEEn 2007ko bigarren hiruhilekoan salmenta-erregimenean antzemandako eraikuntza berriko etxebizitza libreek honako profil honi erantzuten diote nagusiki: etxebizitza kolektiboak (%85), 76 m<sup>2</sup> eta 90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera erabilgarria dutenak (%36) eta akabera-maila normalekoak (%46). Hala ere, adierazi beharra dago azken hiruhilekoetan lagin osoan nabarmen egin duela gora goi-mailako edo luxuzko akabera duten etxebizitzaren proportzioak, eta horrek neurri handiagoan igo duela eraikuntza berriko eskaintzaren batez besteko prezioa EAE osoan.
- ρ Zehazki, Bizkaian eskaintzan antzemandako lau etxebizitzatik bat luxuzko akaberakoa da, etxebizitzaren %45ek goi-mailako akabera du eta %30 baino ez da akabera normalekoa.
- ρ Tamainarik txikieneko etxebizitzetara dagokienez, 60 m<sup>2</sup>-tik beherako azalera oso etxebizitza gutxi daude EAEEn, eskaintako etxebizitza guztien %7,5 besterik ez. Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoan besterik ez da egiaztatzen presentzia handixeagoa (eskaintza osoaren %12).
- ρ EAE osoan etxebizitzaren batez besteko azalera 85 m<sup>2</sup> da. Lurralde Historikoei dagokienez, batez besteko azalera 87 m<sup>2</sup> da Araban, 86 m<sup>2</sup> Bizkaian eta 82 m<sup>2</sup> Gipuzkoan.



### Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- p Etxebizitza familiabakarrei dagokienez, ez dute oso presentzia handia EAEn (etxebizitza guztien %7,5), baina Araban nabarmen egin dute gora (eskaintzaren %21).

### 3.6. taula. Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak

	BO/SOZIALAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
<b>GUZTIRA</b> .....	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>TIPOLOGIA*</b>					
<i>Familiabakarra / Bi familiakoa</i> .....	0,0	14,8	21,1	9,7	15,8
<i>Kolektiboa</i> .....	100,0	85,2	78,9	90,3	84,2
<b>AZALERA ERABILGARRIA</b>					
<i>&lt; 60 m<sup>2</sup></i> .....	7,3	7,5	5,0	12,1	5,3
<i>61-75 m<sup>2</sup></i> .....	35,6	16,5	11,7	20,6	15,7
<i>76-90 m<sup>2</sup></i> .....	57,1	36,3	32,6	41,7	34,0
<i>91-120 m<sup>2</sup></i> .....	0,0	25,9	32,3	17,6	28,9
<i>&gt; 120 m<sup>2</sup></i> .....	0,0	13,9	18,5	8,0	16,1
<b>ERAIKUNTZA FASEA*</b>					
<i>Amaituta</i> .....	1,5	4,9	2,8	5,8	5,2
<i>Obran</i> .....	63,2	79,4	55,1	83,2	86,7
<i>Projektuan</i> .....	35,3	15,7	42,1	11,1	8,0
<b>AKABERA</b>					
<i>Luxuzkoa</i> .....	0,0	13,2	2,2	4,1	24,2
<i>Altua</i> .....	0,0	40,8	12,4	51,3	45,0
<i>Normala</i> .....	100,0	46,0	85,4	44,6	30,8


\* Ez da barne hartzen higiezin agentzietan merkaturatutako sustapenetako etxebizitzetarako buruzko informaziorik.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.




## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.9. grafikoa. Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaie eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

### 3.10. grafikoa. Salgai dauden etxebizitza berri libreen azaleraren bilakaera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaie eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

#### 3.1.3. Etxebizitzak eskaini dituzten sustapenen ezaugarri orokorrak<sup>4</sup>

- ρ 2007ko bigarren hiruhilekoan higiezinaren sustatzaileen artean egindako inkestaren arabera, etxebizitzak eskaini dituzten 303 sustapen antzeman dira guztira. Sustapen horiek 14.831 etxebizitza hartu dituzte guztira.
- ρ Horietatik 191 sustapen libreak izan dira (8.257 etxebizitza) eta 112 babestuak (6.574 etxebizitza).

<sup>4</sup> Gainerako ataletan ez bezala, oraingoan sustatzaileei egindako inkestako datuak bakarrik erabili dira eta sustapena da erreferentziako oinarritzko unitatea.



### Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ρ Hiruhilekoan lehen aldiz antzemandako sustapenak 64 izan dira (2.955 etxebizitza): 38 sustapen libre (1.423 etxebizitza) eta 26 babestu (1.532 etxebizitza).
- ρ Bilakaerari dagokionez, segmentu librean zein babestuan guztira duela urtebete baino sustapen gehiago antzeman diren arren, sustapen berri gutxiago izan da (64 sustapen berri, eta 06-II hiruhilekoan 78).
- ρ Arreta merkatu librean jarriz gero, antzemandako sustapenen baitan dauden etxebizitzen %44 (3.630 etxebizitza) salgai dagoela egiazta daiteke. Proporzioa %47 zen aurreko urteko aldi berean.

### 3.7. taula. Sustatzaileek zuzenean eskainitako etxebizitzen sustapenen ezaugarri orokorrak

	<b>HIRUHILEKOA GUZTIRA</b>	<b>SUSTAPEN BERRIAK</b>
<i>Sustapen-kop. ....</i>	303	64
<i>Libreak .....</i>	191	38
<i>BO/Sozialak .....</i>	112	26
<i>Sustapenetan barne hartutako etxeb. kop.</i>	14.831	2.955
<i>Libreak .....</i>	8.257	1.423
<i>BO/Sozialak .....</i>	6.574	1.532

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

3.8. taula. Erregimen libreko sustapenetan barne hartutako etxebizitzaren bilakaera\*

	ETXEBIZITZAK GUZTIRA	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK	SALGAI DAUDEN ETXEB. % GUZTIZKOAREKIKO	
1994	Batez b.	3.199	1.612	50,3
1995	Batez b.	4.573	1.734	38,0
1996	Batez b.	6.527	2.321	35,5
1997	Batez b.	6.679	2.393	35,8
1998	Batez b.	4.813	1.911	39,7
1999	Batez b.	4.653	2.188	46,9
2000	Batez b.	5.330	2.499	46,9
2001	Batez b.	5.712	2.387	41,8
2002	Batez b.	5.224	2.374	45,4
2003	Batez b.	7.012	2.912	41,5
2004	Batez b.	7.755	3.701	47,7
2005	Batez b.	7.684	3.757	48,9
2006	Batez b.	7.924	3.584	45,2
2006	II	7.962	3.723	46,8
2006	III	8.000	3.700	46,3
2006	IV	7.924	3.584	45,2
2007	I	8.006	3.527	44,1
<b>2007</b>	<b>II</b>	<b>8.257</b>	<b>3.630</b>	<b>44,0</b>

\* Sustatzaileek zuzenean eskainitakoak.  
Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa

3.11. grafikoa. Sustapen libreetan barne hartutako guztizko etxebizitza-kopuruaren eta salgai dauden etxebizitza libreen kopuruaren bilakaera\*



\* Sustatzaileek zuzenean eskainitako sustapenak bakarrik hartu dira kontuan, hortaz, kanpoan utzi dira HJAEk merkaturatutakoak.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK

#### 3.2.1. Salgai dauden etxebizitza erabilien prezioak<sup>5</sup>

- ρ Higiezin jabetzako agenteek salgai eskainitako eta 2007ko bigarren hiruhilekoan egindako inkestaren bitartez antzemandako bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 4.337 €/m<sup>2</sup> da (06-II hiruhilekoan baino %5,2 gehiago). Emaidza horrek erakusten duenez, azken hiruhilekoetan EAEn erregistratutako eskaintzak batez besteko prezioa atxikitze joera du.
- ρ Lurraldeka aztertuz gero, hiru Lurralde Historikoetan antzemandako hazkundea apalagotzen ari dela egiazta daiteke: hazkunderik txikiena Araban antzemandakoa izan da (+%2 06-II hiruhilekoaren aldean), Gipuzkoako urteko aldakuntza-tasa %4 izan da, eta Bizkaian antzemandako hazkundea handixeagoa izan da (+%7,5 06-II hiruhilekoaren aldean).
- ρ Kopuru absolutuetan, batez bestekorik altuena Gipuzkoari dagokio (4.791 €/m<sup>2</sup>), Bizkaia da hurrengoa (4.480 €/m<sup>2</sup>) eta Araba dago azkeneko tokian (3.849 €/m<sup>2</sup>).
- ρ Etxebizitzaren prezioei dagokienez, Gipuzkoan erregistratutako eskaintzaren batez besteko prezioa 400.000 €/etxebizitza da, Bizkaiko batez besteko prezioa 377.000 €/etxebizitza eta Arabakoa 313.000 €/etxebizitza.

#### 3.9. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien m<sup>2</sup>-aren prezioak eta etxebizitzaren prezioak Lurralde Historikoa

	PREZIOA/m <sup>2</sup> erabilgarri		PREZIOA/ETXEBIZITZA	
	Euro/m <sup>2</sup>	± % *	Mila eurotan	± % *
Araba .....	3.849,0	1,9	312,9	0,1
Gipuzkoa.....	4.790,8	3,9	399,7	-1,7
Bizkaia.....	4.479,5	7,5	376,5	5,0
<b>EAE.....</b>	<b>4.336,8</b>	<b>5,2</b>	<b>360,7</b>	<b>2,2</b>

\* Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa.


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

<sup>5</sup> Aipatutako prezioak bere etxebizitza *higiezin agentzia baten bitartez* saldu nahi duen eskaintzaileak *eskatutako* prezioak dira; horrela, kontuan hartu behar da: 1) eskatzen diren prezioek, normalean, alde negoziatzaileen artean akordio batera iristean ordainduko den prezioa gainditzen dute EAEn, baina HJAen ustez EAEn batez beste %3 eta %4 artean murrizten dira eta, 2) bitartekari gabe saltzen diren etxebizitzaren azterketatik kanpo daudela.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.12. grafikoa. Etxebizitza erabilien m<sup>2</sup> erabilgarriaren prezioa Lurralde Historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

- ρ Eskaintzaren prezio-segmentu zabalen araberako banaketari dagokionez, eskaintako etxebizitzaren %58k 240.000 eta 420.000 € bitarteko prezioa duela egiazta daiteke. Banaketa horri erreparaturaz gero, merkatu babestuaren prezio-mailan dauden etxebizitzaren eskaintza oso urria dela egiazta daiteke (%1,6 besterik ez dago 180.000 €-tik behera). Bestalde, azterketak nabarmentzen duenez, etxebizitzaren %28 420.000 €-tik gorako prezioan eskaintzen da (duela urtebete %25).
- ρ Lurraldeka aztertuz gero, azpimarratzekoa da Gipuzkoan etxebizitzaren %40k 420.000 €-tik gorako prezioa duela; proportzioa %33 da Bizkaian eta Araban %13 besterik ez.




**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**3.10. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera**

PREZIOA	EAE (%)
120.000 € baino gutxiago	0,1
120.001 - 150.000 €	0,4
150.001 - 180.000 €	1,2
180.001 - 240.000 €	12,7
240.001 - 300.000 €	26,0
300.001 - 360.000 €	19,1
360.001 - 420.000 €	12,8
420.001 - 480.000 €	9,0
480.001 - 540.000 €	6,7
540.001 - 600.000 €	4,2
600.000 € baino gehiago	8,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**3.13. grafikoa. EAEn salgai dauden etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera**




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.





## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 3.14. grafikoa. Etxebizitza erabilien banaketa prezio-tarteen arabera Lurrealdean



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

### 3.2.2. Kuantifikazioa eta ezaugarriak<sup>6</sup>

- ρ Higiezinaren jabetzako agenteek salgai eskainitako eta 2007ko bigarren hiruhilekoan antzemandako bigarren eskuko etxebizitzak honela daude banatuta: %54 Bizkaian, %30 Araban eta %16 Gipuzkoan. Kopuru absolutuei dagokienez, bolumena 8.147 unitatekoa da EAE osoan.
- ρ Banaketa aurreko urteko aldi berean antzemandakoaren antzekoa da, baina Bizkaian presentzia erlatiboak apur bat atzera egin duela, Arabaren pisu erlatiboak zertxobait gora egin duela eta Gipuzkoak bere horretan jarraitzen duela ikus daiteke.

<sup>6</sup> Hemen aurkeztutako datuen bitartez hiruhileko honetan jasotako etxebizitzaren laginaren ezaugarriak islatu dira, eta lagin hori erabili da prezioen estatistika lantzeko.



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**3.11. taula. Salgai dauden etxebizitza erabiliak Lurralde Historikoka**

	<i>ETXE BIZITZA KOP.</i>
Araba.....	2.481
Gipuzkoa.....	1.276
Bizkaia.....	4.390
<b>EAE.....</b>	<b>8.147</b>

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*

- ρ Etxebizitzen azalera erabilgarriaren arabera banaketak nabarmentzen du tamaina txikiagoko etxebizitzen presentzia handiagoa dela eraikuntza berriko etxebizitzen segmentuan baino. Hain zuzen ere, EAE osoan antzemandako eskaintzaren %22k 60 m<sup>2</sup>-tik beherako azalera dauka eta eraikuntza berriko eskaintza librearen %7,5 baino ez dago maila horretan.

**3.12. taula. Salgai dauden etxebizitza erabilien ezaugarriak**

	<i>EAE (%)</i>	<i>ARABA (%)</i>	<i>GIPUZKOA (%)</i>	<i>BIZKAIA (%)</i>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>TIPOLOGIA</b>				
Familiabakarra / Bi familiakoa	2,6	3,2	5,7	1,4
Kolektiboa.....	97,4	96,8	94,3	98,6
<b>AZALERA</b>				
<b>ERABILGARRIA</b>				
60 m <sup>2</sup> edo gutxiago .....	21,8	17,6	18,4	25,2
61-75 m <sup>2</sup> .....	26,0	27,3	26,2	25,2
76-90 m <sup>2</sup> .....	26,3	31,9	27,7	22,8
91-120 m <sup>2</sup> .....	15,5	15,1	16,5	15,5
> 120 m <sup>2</sup> .....	10,3	8,0	11,1	11,3

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*



## **4. ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK**



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**4. ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK**

**4.1. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUAK**

**4.1.1. Alokatzeko etxebizitza babestuak errentaren arabera**

- ρ 2007ko bigarren hiruhilekoan alokatzeko eskaintzan antzeman diren etxebizitza babestuen hileko batez besteko errenta 215 € da. Babes ofizialeko etxebizitzaren batez besteko errenta 344 €/hil da eta etxebizitza sozialena 140 €/hil.
- ρ Bilakaera aztertuta, bi modalitateetan batez besteko errenta murriztu egin dela ikus daiteke. Babes ofizialeko etxebizitzaren errenta neurri handiagoan murriztu da (06-II hiruhilekoan baino %14 txikiagoa) eta etxebizitza sozialaren batez besteko errenta urtean %2 murriztu da.
- ρ Lurralde historikoei dagokienez, eta babes ofizialeko etxebizitzak kontuan hartuta, Araban errenta nabarmen handiagoa da (416 €/hil), Bizkaiko errenta da hurrengoa (353 €/hil), eta azkenik, Gipuzkoakoa (253 €/hil).
- ρ Etxebizitza sozialari erreparatuz gero, antzeko sailkapena ikusiko dugu. Hala, Arabari dagokio batez bestekorik altuena (145 €/hil), Bizkaiko errenta da hurrengoa (138 €/hil) eta Gipuzkoakoa azkena (117 €/hil).

**4.1. taula. Alokatzeko etxebizitza babestuen errentak Lurralde Historikoka**

	BOE		SOZIALAK		BABESTUAK GUZTIRA	
	Eurotan	± % *	Eurotan	± % *	Eurotan	± % *
Araba .....	416,3	1,6	145,1	-0,3	214,8	-29,5
Gipuzkoa .....	253,0	-33,9	117,4	-21,7	194,3	-36,8
Bizkaia .....	353,3	-8,1	137,7	-1,7	203,5	-17,1
<b>EAE .....</b>	<b>344,4</b>	<b>-14,1</b>	<b>140,0</b>	<b>-2,3</b>	<b>214,7</b>	<b>-24,6</b>


\* Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 4.1. grafikoa. Alokairu babestuaren batez besteko errenten bilakaera Lurralde Historikoka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

- ρ Alokatzeko etxebizitzaren eskaintza babestuaren errenta-tarte zabalen arabera banaketak kontzentrazio garrantzitsua erakusten du 120 €/hil eta 240 €/hil bitartean dagoen errenta-tartean. Hain zuzen ere, eskaintzan antzemandako etxebizitza guztien %48,5 hartzen du tarte horrek. Horrez gain, metatzeak aurkitu ditugu beste bi tartetan ere: eskaintzako lau etxebizitzatik bat beheko segmentuan (<120 €/hil) dago eta 360 €/hil eta 480 €/hil bitartekoak eskaintzaren %17,2 kontzentratzen du. Antzemandako sakabanatze hori errenta-maila desberdin askoak dituzten bi babes-modalitate izatearen ondorio da.
- ρ Banaketaren bilakaerari erreparatzen badiogu, eskaintza pixkanaka 120 € eta 240 € bitarteko tartean kontzentratzen ari dela ikus dezakegu, alokatzeko eskaintza babestuaren barruan etxebizitza sozialek gero eta ehuneko handiagoa hartzen dute-eta.



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**4.2. taula. Alokatzeko etxebizitza babestuen banaketa errenta-tarteen arabera**

	<b>BABESTUAK (%)</b>
<b>HILEKO ERRENTA</b> .....	
120 euro edo gutxiago.....	24,6
120,01 - 240 euro.....	48,5
240,01 - 360 euro.....	7,4
360,01 - 480 euro.....	17,2
480 - 600 euro.....	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*

**4.1.2. Kuantifikazioa eta ezaugarriak**

- ρ 2007ko bigarren hiruhilekoan alokatzeko eskaintzan antzemandako etxebizitza babestuak honela banatuta daude: Bizkaian eskaintza osoaren %54 dago, Araban %36 eta Gipuzkoan %10 besterik ez.
- ρ Babes-modalitatearen azterketak nabarmentzen du etxebizitza soziala (%67) babes ofizialeko etxebizitzari (%33) nagusitzen zaiola. Lurralde Historikoetan nola banatzen diren aztertzen badugu, Araban eta Bizkaian etxebizitza soziala nagusi dela eta Gipuzkoan, aldiz, alokatzeko babes ofizialeko etxebizitza gehiago dagoela (%72 BOE – %28 soziala) ikusiko dugu.
- ρ Babes-tipologiaren araberako banaketa horren bilakaerak nabarmentzen du etxebizitza sozialak gero eta pisu erlatibo handiagoa duela, babes ofizialeko etxebizitzaren kaltetan. Izan ere, egungo banaketa etxebizitza sozialaren aldekoa da (%67 soziala – %33 BOE), baina duela urtebete babes ofizialeko etxebizitza zen nagusi (%47 soziala – %53 BOE).

**4.3. taula. Alokatzeko etxebizitza babestuak Lurralde Historikoka**

	<b>BOE</b>	<b>ETXEBIZITZA SOZIALAK</b>	<b>BABESTUAK GUZTIRA</b>
Araba.....	185	405	590
Gipuzkoa.....	113	44	157
Bizkaia.....	242	646	888
<b>EAE.....</b>	<b>540</b>	<b>1.095</b>	<b>1.635</b>


*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ρ Hala ere, eskaintza babestu osoa kontuan hartzen badugu (salgai + alokatzeko), babes ofizialeko etxebizitzaren modalitatea eskaintzan oro har nabarmen nagusi dela egiaztatuko dugu. Gainera, pixkanaka gora egin du azken urteetan.
- ρ Bestalde, alokatzeak eskaintza babestu osoan duen pisu erlatiboa konparatzen badugu, 2007ko bigarren hiruhilekoan antzemandako lau etxebizitza babestutik bat alokatzeko erregimenean eskainita dagoela egiaztatuko dugu (%25 alokatzeko – %75 salgai). Bilakaerari dagokionez, alokatzeko erregimena pixkanaka gora egiten ari da eskaintza babestuaren barruan. Hala, 2006ko bigarren hiruhilekoan eskaintzaren %21 alokatzeko zegoen eta %79 salgai, eta duela bi urte %13 alokatzeko eta %87 salgai.

### 4.2. grafikoa. Eskaintako etxebizitza babestuen bilakaera edukitze-erregimenaren arabera




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 4.3. grafikoa. Eskaintako etxebizitza babestuen (salgai eta alokatzeko daudenak batera hartuta) bilakaera babes-modalitatearen arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

- ρ Eskaintza babestuaren azalera-tarte zabalaren arabera banaketari dagokionez, alokatzeko erregimenean eskaintako etxebizitza gehienak eskaintzaren %47 hartzen duen tarteko segmentuan (61-75 m<sup>2</sup>) kontzentratzen dira, tamaina horretatik gorako etxebizitzak eskaintzaren %27 dira eta 60 m<sup>2</sup>-ko azalera gainditzen ez dutenak alokatzeko eskaintako etxebizitza guztien %26.
- ρ Banaketa hori salgai dagoen eskaintza babestuan antzemandakoarekin alderatzen badugu alde nabarmena dagoela egiaztatzen da: salgai dauden etxebizitza gehienek 75 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera dute (eskaintza osoaren %57) eta 61 m<sup>2</sup>-tik beherako eskaintza oso urria da (eskaintza osoaren %7).
- ρ Hala ere, bilakaerari erreparatuz gero, alokatzeko erregimenean tamaina txikieneko etxebizitzaren presentzia erlatiboa aurreko urtean antzemandakoa baino txikiagoa dela egiazta daiteke (%26 eta 06-II hiruhilekoan %35).






**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**4.4. taula. Eskaintako etxebizitza babestuen banaketa azalera erabilgarriaren arabera**

AZALERA ERABILGARRIA	SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZAK (%)	ALOKATZEKO ETXEBIZITZAK (%)
60 m <sup>2</sup> edo gutxiago .....	7,3	26,2
61-75 m <sup>2</sup> .....	35,6	47,1
76-90 m <sup>2</sup> .....	57,1	26,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**4.4. grafikoa. Etxebizitza babestuen azaleraren bilakaera**



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 4.2. ALOKATZEKO ETXEBIZITZA LIBREAK

#### 4.2.1. Alokatzeko etxebizitza libreak errenten arabera

- ρ Partikularrenak diren eta higiezin jabetzako agenteen bitartez<sup>7</sup> alokatzeko eskaini diren bigarren eskuko etxebizitzaren hileko batez besteko errenta 839 € da EAE osoan, hots, aurreko urteko aldi berean antzemandako batez besteko errenta baino %2 altuagoa.
- ρ Lurraldeei dagokienez, batez bestekorik altuena Araban dago (869 €/hil), Bizkaia da hurrengoa (828 €/hil) eta Gipuzkoa azkena (810 €/hil).

#### 4.5. taula. Alokatzeko etxebizitza libreen errentak Lurralde Historikoka

	HILEKO ERRENTA	
	Eurotan	± % *
Araba.....	868,5	-1,4
Gipuzkoa.....	809,6	-0,7
Bizkaia.....	828,0	5,0
<b>EAE.....</b>	<b>838,9</b>	<b>2,4</b>

\* Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa. Aurreko urteko HJAen laginaren oinarri berarekiko kalkulatu da.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.


- ρ Etxebizitzaren errenta-tarte zabalen arabera banaketari erreparatzen badiogu, hileko 600 €-tik beherako errentan eskainitako etxebizitzaren presentzia urria dela egiaztatzen da (eskaintzaren %10). Bestalde, eskaintzaren %20k hileko 1.080 €-ko errenta gainditzen du, eta eskaintzaren zati handienak hileko 720 eta 960 € bitarteko errenta dauka (eskaintza osoaren %40).

<sup>7</sup> Kontuan hartu behar da ez direla aintzat hartu jabeek zuzenean eskainitako etxebizitzak, higiezin agenteei eskainitakoak baizik.



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sails**

**4.5. grafikoa. Alokairu libreko batez besteko errenten bilakaera Lurralde Historikoka**



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**4.6. taula. Alokatzeko etxebizitza libreen banaketa errenta-tartean arabera**

	LIBREAK (%)
<b>HILEKO ERRENTA</b> .....	
120 euro edo gutxiago.....	0,0
120,01 - 240 euro.....	0,1
240,01 - 360 euro.....	0,2
360,01 - 480 euro.....	1,1
480,01 - 600 euro.....	8,2
600,01 - 720 euro.....	14,3
720,01 - 840 euro.....	21,4
840,01 - 960 euro.....	21,0
960,01 - 1.080 euro.....	13,2
1.080,01 - 1.200 euro.....	10,6
1.200 euro baino gehiago.....	10,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**4.2.2. Kuantifikazioa eta ezaugarriak**

- ρ Alokatzeko eskaintako etxebizitza erabilien lagina 489 etxebizitzak osatzen dute 2007ko bigarren hiruhilekoan. Lurraldeka honela banatzen dira: %40 Araban, %39 Bizkaian eta %21 Gipuzkoan.
- ρ Laginaren azalera-tarte zabalen arabera banaketari dagokionez, esan beharra dago aski homogeneoa dela segmentu desberdinetan. Dena den, 76



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

eta 90 m<sup>2</sup> bitarteko segmentua da etxebizitza gehien kontzentratzen duena (eskaintza osoaren %26) eta horren azpi-azpikoa (61-75 m<sup>2</sup>) da hurrengoa, eskaintza osoaren %25 biltzen du-eta.

- ρ Bilakaerari dagokionez, adierazi beharra dago tamaina txikiko etxebizitzaren eskaintza pixkanaka eta etengabe gora egiten ari dela. Hala, 2007ko bigarren hiruhilekoan antzemandako alokatzeko eskaintzak hartzen dituen etxebizitzaren %43k 75 m<sup>2</sup> erabilgarritik beherako azalera du. Proportzio hori %40 zen duela urtebete eta %35 duela bi urte.

### 4.7. taula. Alokatzeko eskaintako etxebizitza libreak Lurralde Historikoka

	<b>ALOKAIRU LIBREA</b>
Araba .....	194
Gipuzkoa .....	106
Bizkaia .....	189
<b>EAE .....</b>	<b>489</b>

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*

### 4.8. taula. Alokairu libreko etxebizitzaren banaketa azalera-tarteen arabera

	<b>LIBREAK (%)</b>
<b>AZALERA</b> .....	
< 60 m <sup>2</sup> .....	17,7
61-75 m <sup>2</sup> .....	25,4
76-90 m <sup>2</sup> .....	26,0
91-120 m <sup>2</sup> .....	19,5
> 120 m <sup>2</sup> .....	11,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.*



## **5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA ESPARRU GEOGRAFIKOKA**



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA ESPARRU GEOGRAFIKOKA

#### 5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRI LIBREAK

- ρ 2007ko bigarren hiruhilekoan hiriburuetan erregistratutako eraikuntza berriko etxebizitzaren batez besteko prezioa hiriburuen eragin-eremuan kokatutako udalerrietan antzemandako batez bestekoa baino %22 garestiagoa da, eta EAEko gainerako udalerrietan kokatutako etxebizitzaren prezioa baino % 47 garestiagoa.
- ρ Zehazki, hiribururik garestiena Donostia da oraindik ere (5.140 €/m<sup>2</sup> batez beste), Bilbo da hurrengoa (4.853 €/m<sup>2</sup>) eta Araba dago azkeneko tokian (4.271 €/m<sup>2</sup>). Bilakaerari dagokionez, hazkundea berdin-berdina izan da Gasteizen eta Bilbon (06-II hiruhilekoan baino %9,2 gehiago) eta Donostian txikixeagoa (06-II hiruhilekoan baino %7,3 gehiago).
- ρ Hiriburuetakoko eskualde-egituretan batez besteko prezioa 3.897 €/m<sup>2</sup> da (+%17,5 urtean), eta gainerako udalerrietan 3.252 €/m<sup>2</sup> (+%9,5 urtean).
- ρ 2007ko bigarren hiruhilekoan antzemandako eskaintzaren banaketa geografikoari dagokionez, banaketa aski homogenea izan da azterketan kontuan hartutako hiru esparruetan, baina hiriburuak beste bi zonek baino proportzio txikixeagoa kontzentratzen dute. Hala, hiriburuak eskaintza osoaren %29 hartzen dute, hiriburuetakoko eskualde-egituretak udalerriek %35 kontzentratzen dute eta EAEko gainerako udalerriek %36.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila


5.1. taula. Salgai dauden etxebizitza berri libreak eta prezioak esparru geografikoka

	ETXEBIZITZA KOP.		PREZIOA/m <sup>2</sup> erabilgarri (eurotan)		PREZIOA/ ETXEBIZITZA (mila eurotan)
	2006ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	± % *	2007ko 2. hiruhilekoa
Araba .....	974	828	3.503,0	-0,4	307,7
Gipuzkoa.....	1.333	1.328	3.907,8	10,9	328,8
Bizkaia.....	1.719	1.896	4.041,5	16,5	349,5
<b>EAE .....</b>	<b>4.026</b>	<b>4.037</b>	<b>3.913,2</b>	<b>12,2</b>	<b>335,5</b>
Gasteiz .....	657	493	4.270,7	9,2	358,6
Donostia .....	260	277	5.139,7	7,3	431,8
Bilbo.....	323	392	4.853,4	9,2	416,6
<b>Hiriburuak guztira ....</b>	<b>1.240</b>	<b>1.162</b>	<b>4.774,7</b>	<b>12,8</b>	<b>401,5</b>
<i>Gasteizko EE gainerakoa .....</i>	212	140	1.981,6	2,6	184,6
<i>Donostiako EE gainerakoa .....</i>	232	262	4.120,4	19,3	307,0
<i>Bilboko EE gainerakoa .</i>	845	1.016	4.044,8	14,8	315,4
<b>Hiriburuetakoo EE gainerakoa.....</b>	<b>1.289</b>	<b>1.418</b>	<b>3.896,8</b>	<b>17,5</b>	<b>305,3</b>
<i>Araba gainerakoa .....</i>	105	181	2.388,5	-9,5	199,6
<i>Gipuzkoa gainerakoa ...</i>	842	789	3.389,1	7,4	298,2
<i>Bizkaia gainerakoa .....</i>	551	488	3.274,9	19,9	302,7
<b>Gainerakoa guztira ...</b>	<b>1.497</b>	<b>1.457</b>	<b>3.252,0</b>	<b>9,5</b>	<b>291,6</b>

\* Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

5.1. grafikoa. Etxebizitza berri librearen eskaintzaren banaketa esparru geografikoka




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 5.2. grafikoa. Etxebizitza berri libreen m<sup>2</sup>-aren prezioen bilakaera esparruka



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

### 5.2. SALGAI JARRITAKO ETXEBIZITZA BABESTU BERRIAK

- ρ Aztertutako esparru geografiko guztietan salmenta-erregimenean eskaintako etxebizitza babestuen batez besteko prezioetan antzeman diren aldeak oso txikiak dira. Zehazki, hiriburuetan etxebizitzaren batez besteko prezioa 1.308 €/m<sup>2</sup> da, hiriburuetako eskualde-egituretako udalerrietan 1.287 €/m<sup>2</sup> eta EAEko gainerako udalerrietan 1.279 €/m<sup>2</sup>.
- ρ Etxebizitzaren prezioari dagokionez, hiriburuetan prezioa 104.000 €/etxebizitza da batez beste, horien eragin-eremuetan kokatutako udalerrietan 93.000 €/etxebizitza eta EAEko gainerako udalerrietan 101.000 €/etxebizitza.
- ρ Saltzeko eskaintza babestuaren banaketa geografikoari dagokionez, hiriburuak —Gasteizek batik bat— kontzentratzen dute eskaintzaren zati handiena. Izan ere, azpimarratu beharra dago 2007ko bigarren hiruhilekoan eskaintzan antzemandako etxebizitzaren ia erdiak Gasteizen kokatzen direla (eskaintako guztien %47). Bestalde, Bilbok eskaintzaren %13,5 hartzen du eta Donostiak %6. Beraz, saltzeko eskaintza babestuaren %67 biltzen dute guztira hiriburuak.





## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- ρ Gainerako etxebizitzetara dagokienez, homogeneouski banatzen dira beste bi esparru geografiko handietan: esparru bakoitzak eskaintza osoaren %16,5 kontzentratzen du. Kopuru absolutuei dagokienez, hiriburuetako eskualde-egituretako udalerrietan 795 etxebizitza antzeman dira eskaintzan eta EAEko gainerako udalerrietan 787.

### 5.2. taula. Salgai dauden etxebizitza berri babestuak eta prezioak esparru geografikoa

	Etxebizitza-kop.		PREZIOA/m <sup>2</sup> erabilgarri (eurotan)		PREZIOA/ETX EBIZITZA (mila eurotan)
	2006ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	± % *	2007ko 2. hiruhilekoa
Araba .....	2.108	2.411	1.296,4	1,2	106,6
Gipuzkoa .....	529	731	1.289,5	5,0	94,1
Bizkaia .....	2.013	1.680	1.307,7	3,5	98,2
<b>EAE .....</b>	<b>4.650</b>	<b>4.822</b>	<b>1.299,1</b>	<b>2,5</b>	<b>101,7</b>
Gasteiz .....	2.028	2.280	1.297,6	0,9	106,6
Donostia .....	93	307	1.303,2	1,1	90,3
Bilbo .....	599	653	1.346,2	2,6	102,1
<b>Hiriburuak guztira ...</b>	<b>2.719</b>	<b>3.240</b>	<b>1.307,9</b>	<b>1,2</b>	<b>104,0</b>
Gasteizko EE gainerakoa .....	53	4	1.200,0	6,8	108,0
Donostiako EE gainerakoa .....	221	110	1.324,0	6,0	89,7
Bilboko EE gainerakoa .....	994	682	1.281,8	2,1	93,4
<b>Hiriburuetako EE gainerakoa .....</b>	<b>1.267</b>	<b>795</b>	<b>1.287,4</b>	<b>2,9</b>	<b>93,0</b>
Araba gainerakoa .....	28	128	1.274,1	1,5	107,1
Gipuzkoa gainerakoa .....	215	314	1.263,1	8,3	99,3
Bizkaia gainerakoa .....	421	345	1.288,5	6,3	99,5
<b>Gainerakoa guztira .....</b>	<b>664</b>	<b>787</b>	<b>1.279,4</b>	<b>6,4</b>	<b>100,7</b>

\* Etxebizitza guztiak dira BOE modalitatekoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

### 5.3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK

- ρ Hiriburuetan salgai eskaintako bigarren eskuko etxebizitzetara batez besteko prezioa 4.209 €/m<sup>2</sup> da. Donostiara batez besteko nabarmenki handiagoa du (5.590 €/m<sup>2</sup>), Bilbon batez bestekoa 4.217 €/m<sup>2</sup> da eta Gasteizen, bestalde, 3.900 €/m<sup>2</sup>.
- ρ Bilakaera aztertuz gero, batez besteko prezioaren igoera apalagotu egin da azken urtean; apalagotze hori Gasteizen izan da nabarmenena (%2 igo da 06-



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

II hiruhilekotik). Donostiak %5eko urteko aldakuntza-tasa izan du eta Bilbon antzemandako hazkundera handixeagoa izan da (%8 igo da 06-II hiruhilekotik).

- ρ Hiriburuetak eskualde-egituretan kokatutako udalerriei dagokienez, Gasteiz eta Donostia inguruko udalerrietan batez besteko prezioa hiriburuetakoa baino merkeagoa da (%25 merkeagoa bi kasuetan), baina Bizkaian alderantzizko fenomeno gertatzen da: Bilbo inguruko udalerrietan batez besteko prezioa 4.735 €/m<sup>2</sup> da, hots, hiriburuko bertako batez bestekoa baino %12 garestiagoa.
- ρ Horren ondorioz, eta esparru geografiko horretan antzemandako eskaintzaren bolumenak lagin osoaren gainean duen pisu erlatibo garrantzitsuak bultzatuta, eremu geografiko osoko batez besteko prezioa hiriburuetakoa batez besteko prezioaren gainetik dago (ikus 5.3. grafikoa). Halere, nabarmendu beharra dago esparru geografiko horretan denbora luzean batez besteko prezioak igoera garrantzitsuak izan ondoren, azken hiruhilekoetan prezioak apalagotzeko joera ere antzeman dela.
- ρ Bestalde, EAEko gainerako udalerrietan erregistratutako batez besteko prezioa neurri handiagoan igotzen ari da eta, horrenbestez, aztertutako hiru esparru geografikoetan antzemandako prezioen arteko aldeak murrizten ari dira. Alabaina, gogorarazi behar da hori Bizkaiko egoera dela, baina Gipuzkoan eta Araban egoera bestelakoa dela eta esparru geografikoen arteko prezioetan alde handiagoak daudela.
- ρ Etxebizitzaren prezioei dagokienez, batez besteko prezioa 368.000 €/etxebizitza da hiriburuetan. Hiriburuetak eskualde-egituretan —hiriburuak alde batera utzita— prezioa 383.000 €/etxebizitza da, eta EAEko gainerako udalerrietan 281.000 €/etxebizitza.
- ρ Antzemandako eskaintzak esparru geografikoa duen banaketari dagokionez, hiriburuak eskaintza osoaren %57 kontzentratzen dute, hiriburuetak eskualde-egituretan kokatutako udalerriek %37 hartzen dute eta EAEko gainerako udalerrietan eskaintzaren %6 baino ez dago.



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**


**5.3. taula. Salgai dauden etxebizitza erabiliak eta prezioak esparru geografikoka**

	ETXE BIZITZA KOP.		PREZIOA/m <sup>2</sup> erabilgarri (eurotan)		PREZIOA/ETXEBIZITZA (mila eurotan)
	2006ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	2007ko 2. hiruhilekoa	± % *	2007ko 2. hiruhilekoa
Araba.....	1.891	2.481	3.849,0	1,9	312,9
Gipuzkoa.....	1.013	1.276	4.790,8	3,9	399,7
Bizkaia.....	3.693	4.390	4.479,5	7,5	376,5
<b>EAE.....</b>	<b>6.596</b>	<b>8.147</b>	<b>4.336,8</b>	<b>5,2</b>	<b>360,7</b>
Gasteiz.....	1.808	2.381	3.868,9	2,1	312,7
Donostia.....	568	603	5.590,1	4,9	504,9
Bilbo.....	1.544	1.645	4.217,7	8,4	388,3
<b>Hiriburuak guztira.....</b>	<b>3.920</b>	<b>4.628</b>	<b>4.209,2</b>	<b>4,2</b>	<b>367,5</b>
Gasteizko EE gainerakoa.....	42	52	2.862,1	2,1	210,6
Donostiako EE gainerakoa.....	283	423	4.170,1	12,0	329,6
Bilboko EE gainerakoa.....	1.963	2.584	4.735,2	9,1	393,7
<b>Hiriburuetako EE gainerakoa.....</b>	<b>2.288</b>	<b>3.058</b>	<b>4.632,1</b>	<b>9,1</b>	<b>383,2</b>
Araba gainerakoa.....	42	48	2.183,6	2,2	199,3
Gipuzkoa gainerakoa.....	161	251	3.690,4	11,1	293,5
Bizkaia gainerakoa.....	185	162	3.274,9	18,7	285,8
<b>Gainerakoa guztira.....</b>	<b>388</b>	<b>461</b>	<b>3.393,8</b>	<b>16,2</b>	<b>280,6</b>

\* Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

**5.3. grafikoa. Etxebizitza erabilien m<sup>2</sup>-aren prezioen bilakaera esparru geografikoka**




Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### 5.4. grafikoa. Salgai dauden etxebizitzaren m<sup>2</sup>-aren prezioak esparru geografikoka motaren arabera



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 2. hiruhilekoa.

### 5.4. ALOKAI RU LIBREKO ETXEBIZITZAK

- ρ Partikularrenak diren eta higiezinaren jabetzako agenteen bitartez alokatzeko erregimenean eskaini diren bigarren eskuko etxebizitzaren hileko batez besteko errenta 877 € da hiriburuetan 2007ko bigarren hiruhilekoan. Donostiari dagokio batez besteko errentarik altuena (946 €/hil), Gasteizko batez besteko errenta 872 €/hil da eta Bilbokoa 852 €/hil.
- ρ Hiriburuetako eskualde-egituretan kokatutako udalerrietako batez besteko errenta 766 €/hil da. EAEko gainerako udalerrietako batez besteko errenta nabarmen baxuagoa da (599 €/hil).
